



JASANGARRITASUNA '23

LABORAL Kutxan, helburu argia dugu:

Komunitate oparoagoak, berdinzaleagoak eta jasangarriagoak eraikitzen ditugu, kultura kooperatibo solidario eta erantzunkidea zabalduz.



BEZEROAK



PERTSONAK




GIZARTEA



BEZEROAK

GURE BEZEROEN FINANTZAKETA JASANGARRIA SUSTATZEN DUGU



% 39

LABORAL Kutxak emandako finantzaketatik **helburu jasangarrietara** bideratutakoa



3.380 M€



FINANTZAKETA JASANGARRIRA BIDERATU DIRA

➤ % 39 helburu jasangarrietara bideratu da:



INGURUMEN-helburua duen finantzaketa:
energia berriztagarriak, mugikortasun jasangarria, eraikin efizienteak, ekonomia zirkularra eta nekazaritza jasangarria.

% 13



Helburu SOZIALA duen finantzaketa:
hezkuntza, osasuna, integrazioa, kultura, gizarte-ekonomia eta etxebizitza eskuragarria.

% 7



ETE-entzat, mikroETE-entzat eta udalerrri txiki edo gizarte-egoera ahulekoentzat.

% 19



GIZARTEA

LABORAL KUTXAN GIZARTEAN BANATZEN DUGU IRABAZIEN % 25

➤ % 21,8, Mondragon Fundazioaren bidez

- Gizarte-ekonomia sustatzea.
- Ekosistema kooperatiboari eta hartako 80.000 lanpostuei eustea.
- Mondragon Unibertsitatea (MU).
- Ikastetxeak.
- Berrikuntza eta zentro teknologikoak.

➤ Beste % 3,2, zuzeneko ekarpenen bidez

- Ekintzaitzari laguntzea.
- Kultura- eta kirol-ekitaldiak.
- Pobreziaren aurkako borroka.
- Laguntza-erakundeak.
- Genero-berdintasuna eta aniztasuna sustatzeko jarduerak.
- Euskara eta euskal kultura sustatzea.



32,7 M€



GIZARTERA
BIDERATU DIRA

A purple-tinted photograph of a woman on a scooter and a man on a bicycle in an urban setting. The woman is on the left, riding away from the camera. The man is on the right, riding towards the camera. The background shows a city street with buildings and other people. The word "PERTSONAK" is overlaid in white text in the center of the image.

PERTSONAK

➤ PROIEKTU KOOPERATIBOA

LABORAL Kutxan lan egiten dugunok kooperatibaren bazkideak gara, demokratikoki hartzen dugu parte haren gobernantzan eta emaitzak zuzentasunez banatzen ditugu.

➤ BERDINTASUNA

Administrazio-organo gorenean emakumeen eta gizonen kopuru bera izan zuen lehen finantza-erakundea da LABORAL Kutxa.

➤ ORDAINSARI ALDAKORRA

LABORAL Kutxako pertsona guztion ordainsari aldakorrean ingurumen-hobekuntzako helburuak ezarri dira.

➤ SOLDATA-ARRAKALA

Ordainsaririk handiena 4,3 aldiz handiagoa da batez besteko ordainsaria baino; IBEX 35eko enpresetan, berriz, 123 aldiz handiagoa da.

The background features a close-up of purple leaves with prominent veins, overlaid with a semi-transparent dark purple rectangular box. The text is centered within this box.

ASKOZ GEHIAGO
EGITEN DUGU...

- **Irisgarritasuna 360 proiektua** jarri dugu martxan, pertsona guztiek izan dezaten gurekin harremanetan egoteko aukera, haien egoera pertsonala, adina edo egoera fisikoa edozein izanda ere.
- **LK Konpromiso funts solidarioak** 344.318 € banatu ditu Medicus Mundi, Mundukide, Caritas, Gurutze Gorria, Unicef eta Intermon-Oxfam GKE-en artean.
- **Gaztenpresa Fundazioak** 320 negozio eta 634 lanpostu sortzen lagundu du.
- Gure **hornitzaileen** % 95,1 **tokikoak dira.**
- Urtebetean, **karbono-aztarna % 10,1 eta paperaren kontsumoa % 14,6 murriztu** dugu.
- Produktu jasangarrien sorta bat ari gara garatzen: **etxebizitzan birgaikuntza, eko maileguak, dispo jasangarria, aseguruak, inbertsio-funtsak...**



LABORAL
kutxa